



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Larunbata
2008-09-06**

VIURTEA 1501ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Tolosaldeko eta Goierriko turismoa bultzatzeko ekimena martxan da

TOLOSALDEA 'Zatuz Euskadiko bihotzera' hitzarmena sinatu zuten atzo bi eskualdeetako kideek, Larraitzen

BERRIKUNTZA Bi eskualdeen arteko elkarlana izango da funtsa; lau kanpaina izango dira urte osoan banaturik 4



Elduainen atzo arratsaldean, suziria bota ostean, gaztetxoek pintura eta pinak egiteko tailerra izan zuten. E.EZEIZA

HAINBESTE FESTAREKIN ETXEAN GERATZEKO AITZAKIARIK EZ DAGO

TOLOSALDEA Atzo hasita Elduainen, Lizartzan, Zizurkilen eta Izaskun eta Bedaio auzoetan jaiak dira nagusi; Alkizan ere murgildurik daude 5

Pilota Txapelketako finalerdiak izango dira gaur eta bihar

LEITZA Gaur lau partida jokatuko dituzte 09:30ean hasita; bihar hiru 10:30etik aurrera 7

**LIZARRIBAR
OINETAKOAK**

GAUR, LARUNBATA

BEHERAPENAK! 10 €, 20 € eta 30 €

1946tik

Arostegieta kalea z/g • TOLOSA • Tel.: 943 67 04 38

AITZOL
UDAL EUSKALTEGIA

Matrikula zabalik irailaren 19 arte.
Titulu homologatuak.

1. maila - 2. maila - Alfabetatzen - 3. maila (EGA) Azterketak euskaltegian bertan.

Ohiko taldeak (astean 8 ordu + tutoretza): euskaltegian, enpresetan, ikastetxeetan, lantokietan...
Autoikaskuntza: tutoretzak, mintzasaiok, bakarkako lana (BOGA + gure unitateak)...

Rondilla, 34-B 3.a
Tel. 943 651006 - 943 652343
aitzolue@tolosakoudala.net

Euskal ohiturak Belgikara gerturatu ditu Udaberrik

Tolosa » Sint-Niklaas hirian ospatutako jaialdi batean hartu dute parte dantza taldekoek; gaur berriz, Izaskunen izango dira.

ERREDAKZIOA

Udaberri Dantzari Taldea Belgikako Sint-Niklaas hirian izan zen abuztuaren 9tik 15era bitartean. Euskal dantza tradizionalarekin euskal kultura eta folkloreaken zaitxo bat erakustez gain, beste herrialdeetako dantzak ezagutzeko aukera ere izan zuten bertan.

Ekainean San Joan jaiaik amaitu zirenez gerotzik, Udaberriko dantzari eta musikariek Belgikarako bidaia buru-belarri prestatzeari ekin zioten. Europa aldera bidaia-zen lehen aldian izan zen aurten goa Dantza Taldeko belaunaldi gaztearentzat. Nahiz eta aurreko bi udetan Katalunia aldean izan ziren, emanaldi ezberdinak eskaintzeko. Honenbestez, gogo biziz ekin zieten entsegueri Belgikako emanaldiak prestatzeko entsegueri.

Belgikako Sint-Niklaas hirian bi urtez behin antolatzen da Volkskunstweek deritzon folklore jaialdia. Europa osoko talde ezberdinek parte hartzen dute bertan, eta aurtengoa, Udaberrikoekin batera, Belgika, Suedia, Gales eta Alemanian aldeko taldeak ere aritu ziren.



Udaberri Dantza Taldekoek Belgikako jaialdian eskaintako emanaldia. HITZA

Datza Taldekoen esanetan jaialdia «nahiko gogorra» suertatu zitzaizkien dantzarietara zenbait momentutan. Izan ere, egunero dantzatu behar izaten zuten, eta hainbatetan bi aldiz ere bai. Dena dela, taldeko «giro apartak» eta ikuslegoaren txaloek neke guztiak arindu zituzten.

Emanaldien artean aniztasuna izan zen nagusi. Izan ere, mota guztiak eskentatoki eta lekuetan astindu zituzten oinak: parkeetan, ezindu psikikoen aurrean, zahar-eteetan, antzoki txikietan, plazetan eta areto handietan ere bai.

Emanaldi hauetan ia Euskal Herri osoko dantzak erakutsi zituzten: Gipuzkoako dantzak (Agurra, Desafioa, Brokel-dantza, Uztai-xiki dantza, Soinu zaharrak eta Saltokakoa), Bizkaiko Dantzari

dantza, Ziekoko dantzak (Araba), Xuletino (Zuberoa) eta Fandango eta Arin-arina.

Dantza egiteaz gain ordea, jaialdiko egunerokoaren barruan zeuden ekintzen bidez, Sint-Niklaas, Brujas eta Belgikako kostaldean ezagutzeko aukera ere izan zuten tolosarrek.

«Zalantzarik gabe motibazio iturri bikaina izan da bidaia hau» Udaberriko partaideentzat, eta «horrelako beste bidaia bat antolatzeko irrikaz» daude. Momentuz, gaur, 12:30ean, Izaskun auzoko festetan ikusi ahal izango dituzte tolosarrek. Bestetik, hilaren 28an Uharte-Arakilen ariko dira eta urriaren 5ean, Irurako Kilometro-ak festan. Egun honetan hiru emanaldi eskainiko dituzte. Orain horietan prestatzen dihartute.



Zumalakarregi kalea trafikoarentzako itxita egongo laster. E. EZEIZA

Asteazkenetik aurrera trafikoari itxita Zumalakarregi kalea

Tolosa » Hilaren 10ean hasiko dituzte inguru horretan kolektorearen obrak; ondorioz, taxien geltokia tokiz aldatuko da.

ERREDAKZIOA

Saneamendu kolektorearen obrak direla eta, Zumalakarregi kalea trafikoari itxita egongo da datorren asteazkenetik aurrera. Dena den garajeetarako sarbidea baimenduko da, eta baita zamaketa lanetarako ere. Bestalde, taxien galekuak kalean bertan jarraituko du, baina lekuz aldatuko da. Hau da, hilaren 10etik aurrera kalearen beste muturrean, Zumalakarregi kaleko 4aren parean egongo dira. Izan ere, lanak Zumalakarregi eta San Frantzisko kaleek bat egiten duten unean izango dira.

Eusko Jaurlaritzak, Ura Uraren Euskal Agentziaren bitartez eta Tolosako Udala, Oria eta Zelai ibaietako kolektorea egiten ari dira uren kalitatea eta saneamendu sistema hobetzeko. Hori dela eta hilaren 10etik aurrera Zumalakarregi kalea trafikoari itxita egongo da. Honez gain, hartutako neurrien artean, debekatuta egongo da kalearen eskualdean kotxea uztea.

Kolektorearen putzurik handien eta garrantzitsuenetakoa izango da hau. Honenbestez, Tolosako Udalak lan hauek sortutako arazoengatik «barkamena eta pazientzia» eskatzen die herritarrei. Bestalde, tolosarrei lanen martxaren informazio puntuala eta gerta daitezkeen aldatuak buruzko gora beherak ematen jarraituko du Tolosako Udalak, hemendik aurrera ere, oraindik hilabete ugari falta baitira lanak bukatzeko.

Laburrak

Kutxaren Korreo kaleko bulegoa itxita izango da

TOLOSA » Kutxak Korreo kalean duen bulegoa itxita dago. Izan ere, berrikuntza lanak ari dira egiten bertan. Hori dela eta leihatilan egin beharreko eragiketarik Rondilla kaleko egoitzan egin beharko dituzte bezeroek. Gainerako zerbitzuak San Frantzisko eta Gorritikoetan egin ahal izango dira.

Helduentzako ikastaroetan izena emateko aukera

TOLOSA » Tolosako Helduen Hezkuntza Iraunkorrean izena emateko epea irekita dago jada. Ikastetxe publiko eta doako honetan hainbat ikastaro eskaintzen dituzte. Horien artean: memoria lantzeko, graduatua ateratzeko, informatika hastapenak, arte modulua...

Etorkinentzako euskara ikastaroak, Kultur Etxean

TOLOSA » Ereite elkarteak euskara ikastaroak antolatuta ditu etorkinentzat. Hauetako Kultur Etxean. Jarraitu hilaren 15ean hasiko dira eta 10:00etatik aurrera izango dira. Bertan parte hartu nahi dutenek elkartearen eman dezaketen izena.

Euskara ikasteko aukera laster, AEKekin

Hezkuntza » Ikasturte berriari begira, Tolosan nahiz inguruko herrietan matrikulazio kanpaina abiatu du euskaltegiak.

edo interesa» duen herritarrik baldin balego, eta taldea sortuko baltiz, Tolosaldeko AEKko irakasleak prest daude toki hauetan eskolak emateko.

Maila guztiak ikastaroak eskaintzen ditu Tolosaldeko AEKk. Hau da, behe, erdi nahiz goi mailakoak. Honez gain, EGA, alfabetatze eta 1., 2. eta 3. mailako azterketak prestatzeko ikastaroak ere eskaintzen dituzte.

Ikastaroetan parte hartu nahi dutenek hilaren 26a bitartean eman dezaketen izena. Honetarako bulegoa 10:00etatik 13:00etara bitartean eta 18:00etatik 20:00etara dago irekia. Bestalde, informazio gehiago nahi duenak 943 59 17 04 telefono zenbakira deituta lortu dezake.

ERREDAKZIOA

Egun gutxi falta dira ikasturte berriari ekiteko. Hau gerturatzen ari dela ikusita, Tolosaldeko AEK matrikulazio epea ireki du Tolosan, nahiz inguruko herrietan. Honekin, aurreko urteetan bezala, Irura, Zizurkil eta Amasa-Villabonan euskalduntzeko taldeak eratzeari hasiera eman dute. Hala ere AEK-koek jakitera eman dutenez, beste zenbait herrietan ere, «euskalduntzeko edo alfabetatzeko beharra

berria beka
2008

Norentzat:

- Unibertsitate titulua duten gazte esperientzia gabeentzat
- Prestakuntza teoriko-praktikoa jaso eta karrera profesionala bideratu nahi dutenentzat

Kazetaritza arloa: 8 beka, horietako bat bideo informatiboak lantzeko

Zuzenketa-itzulpen gintza arloa: beka bat

Ezaugarriak:

- 9 hilabeteko iraupena, urritik ekainera
- Astean lau eguneko jarduna
- 6.255 euroko diru laguntza
- BERRIAK Andoainean duen egoitza nagusian edo ordezkarietaren

Ezaugarriak:

- 12 hilabeteko iraupena, urritik irailera
- Astean lau eguneko jarduna
- 8.340 euroko diru laguntza
- BERRIAK Andoainean duen egoitza nagusian

Eskeraer aurkezteko epea: 2008-09-08

Eskera egiteko orria eta beka deialdia www.berria.info helbidean dago eskuragarri

berria

N-1ean dagoena ordezkatzuz autobus geltoki berria egingo du Diputazioak

Irura » Udalak Laskibarreko geltokia moldatzea nahi zuen, baina Aldundiak ez du bat egin egitasmo horrekin.

ERREDAKZIOA

Gipuzkoako Foru Aldundiak, Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuaren ekimenez, Iruran N-1 errepidean autobus geltoki berria egiteko proiektua onartu du. Lanak egiteko aurrekontua 391.860 euro da eta bost hilabeteko epea ezarri da lanak burutzeko. Horrez gain, erabaki du kontratazio espedientea onartzea eta lehiaketa irekiaren bidezko esleipen prozedura hastea, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuta, interesatuta dauden enpresak aurkez daitezzen.

Aldunditik adierazi dute proiektuaren helburua Iruran autobus geltoki berria egitea dela, N-1 errepideko 439. puntu kilometrikoan, Gasteiz-Irun noranzkoan. Kokaleku berriari esker, gaur egun dagoena kendu egin ahal izango da, bazterbidea oso-osorik hartzen baitu, eta horrek istripu arrisku handia sortzen du autobusak gelditu eta berriz errepidera ateratzeko maniobrak egiten dituztenean.

Geltoki berria egin ondoren, autobusak Irurako lotuneko irteerako bidearreko abiadura aldatzeko lerrotik sartuko dira geltokira. Gainera, geldialdia bukatu ondoren autobusak ez dira zuzenean itzuliko N-1 errepidera, gaur egun egiten duten bezala, Irurako lotunetik baizik, bai sarrerako lerrotik, irla eta igarota, eta bai industrialdeko bidetik.

Lan horiek egiteko Irurako lotu-nearen azpiko pasabidea zabaldu egingo da eta N-1 errepidearekiko paralelo doan udalaren bidea alboratu mugitu. Oinezkoentzako espaloio berri bat egingo da azpiko pasabidea lotzeko. Espaloio bidearen alde batean egingo da, eta bideagurutzatu ondoren, arripala baten bidez, geltokiko markesina berria jarriko den plataformara iritsiko da. Lan horiek Lurralde buseko herri arteko autobusek erabiltzen dituzten geltokiak eta gainerako lekuak hobetu eta egokitzeko Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuak abian jarri duen planaren barruan sartzen dira.

Laskibarrekoa ez da moldatuko Irurako Udalak, behin proiektua martxan jarrita, Laskibarreko geltokiaren kokapena hobetzea nahi



Egingo autobus geltokia N-1 errepidearen ondo-ondoan dago. I. GARCIA



Semaforoak jarrita daude eta laster jarriko dituzte martxan. I. GARCIA

zuen. Marimi Ugalde alkateak azaldu duenez, «gure asmoa zen autobusa Laskibarreko bidetik joatea, barrualdetik, eta horrela Laskibarreko geltokia barrualdetik jartzea. Baina Aldundiak eta autobus enpresak autobusa lehenbailehen N-1 errepidera itzultzea nahi zuten eta ez dute nahi izan Laskibarreko geltokia moldatzea.

Ugaldek gaineratu duenez, «Laskibarreko geltokiak ere premia du, orain dagoen bezala arriskutsua delako, baina oraingoz herri-egiteko geltokia moldatuko dute. Gure aldetik jarraituko dugu Laskibarreko geltokia aldatzeako eskatzen».

Semaforoak eta zubia

Errepideen gaian Udalak Diputazioari egingako beste bi eskaera nagusi Kale Nagusian semaforoak jartzearena eta Anoeta eta Irura arteko zubiaren espaloio konpontzearena zen. Zubiaren obrak hasi dira dagoeneko eta Ugaldek espe-

ro du kilometroetako jai nagusia hasten denerako bukatuta egongo dela.

Semaforei dagokionez, Aldundiak jarri ditu bi dagoeneko Kale Nagusian. Bata udaletxearen atzean dagoen zebra bidean eta bestea labaderoaren ondoan. Datoren astetik aurrera jarriko dituzte semaforoak martxan.

ARAMBURU

Salgai (Tolosa). Etxebizitza. Soldadu kalean, Kale Nagusian eta Martin Jose Iraola kalean.
Salgai (Legorreta eta Iruran). Etxebizitza eraberritzeko.
Salgai. Garajeak.
San Frantzisko eta Amarotzen (Tolosa) eta Idoigan (Ibarra).
Salgai edo alokatzeko (Lasarte). Lokala, tximiniarekin, erdigunean.
Alokatzeko (Tolosa). Etxebizitza San Frantziskon eta soldadu kalean.
Alokatzeko (Tolosa). Garajeak, San Frantziskon, Araba etorbidean eta Babxiler Zaldibian.
943 65 17 13 / 677 46 09 16



Asvinenean egin zuten txotxongilo tailerra, Carlos Lopezekin. HITZA

Txotxongilo tailerra antolatu du Asvineneak

Aduna » Carlos Lopez maisuak emango du berriro ikastaroa; 38 ordu iraungo ditu eta bi asteburutan banatuko da.

ERREDAKZIOA

Asvineneak txotxongilo ikastaroa antolatu du berriro Carlos Lopez maisuarekin. Antolatzaileek azal-tzen dutenez, «aurreko ikastaroan

izandako arrakastaren ondoren eta ikusita maisua berak oso gusturara aritu zela, berriz antolatzea erabaki dugu».

Irailaren 19, 20 y 21ean eta 26, 27 y 28 izango da ikastaroa eta gutzira 38 ordu iraungo du. Izen emateko azken eguna irailaren 12a da eta asvinenea@gmail.com helbidean edo 630 214 483 zenbakian egin daiteke. Antolatzaileek jakinarazi dute parte-hartzaileen kopurua mugatua dela.

Laburrak

Loatzo musika eskolako ikasturtea ez hasiko da

MUSIKA » Etzi, hilaren 8an, Loatzo musika eskolako ikasturteari hasiera emango dio. Horrela, klaseak eskualdeko ondorengo herri haue-tan hasiko dira Anoeta, Altzo, Aduna, Ibarra, Irura, Alegia eta Villabonan egun horretan hasiko dira. Zizurkilan, berriz, egunotan jaiak ospatzen ari direla eta hilaren 10ean hasiko dira.

Bakardadeari buruzko hitzaldia Alkartasunan

ANOETA » Aulas Kutxak antolatuta, Urteen bakardadea, aholkuak eta prebentzioa hitzaldia izango da hilaren 10ean Alkartasuna biltokian. Hizlaria Sebas Garciaena izango da eta 18:30ean izango da emaldia. Bertan, bakardadea eta depresioa izango dira hizpide eta hauei aurre egiteko aholkuak emango dira.

DONOSTIAKO komunikazio enpresa batek KUDEATZAILERA behar du:

Enpresaren kudeaketaz arduratzeaz gain (finantzak, fakturazioa, arlo komertziala...), eragileekin izan beharreko harremanen kargua hartuko duen pertsona baten bila gabilta.

Eskatzen da:

- Kudeaketa-administrazio arloa ezagutzea, antzeko lanetan aritu izana eta eskualdea ondo ezagutzea.
- Euskaraz maila ona izatea.
- Itzera dinamikoak, harremanetarako eta antolakuntzarako gaitasuna izatea.
- Gidabaimena eta autoa edukitzea.

Interesa izanez gero, curriculum bidali. argazkiarekin, gizabaliabideak@jarduna.net helbide elektronikora edo beste helbide honetara, irailaren 10a baino lehen: JARDUNA S.M. - Giza Baliabideak saila
Martin Ugalde Kultur Parkea - 20140 - Andoain

'Zatoz Euskadiko bihotzera' akordioa sinatu dute Goierri eta Tolosaldeak

Tolosaldea » Bi eskualdeetako turismoa bultzatzeko hitzarmenaren funtsa «bien arteko elkarlana» izango da.

ERREDAKZIOA

Tolosaldea eta Goierriren arteko *Zatoz Euskadiko bihotzera* hitzarmena sinatu zuten atzo, ordezkaririk Larraitzen elkartu ondoren. «Bi eskualdeetako produktu turistikoa handitzea eta sendotzea, eta elkarlanean, dinamizazioarako eta promoziorako ekimen bateratuak aurrera eramatea» dira helburu nagusiak. Aurkezpenean Patxi Plazaola Beasaingo alkatea, Jokin Bildarratz Tolosako alkatea, Iñaki Galdos Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkaririk gisa eta Koro Garmendia Eusko Jaurlaritzako Industria eta Turismo saileko kontseilari ordea izan ziren.

Jokin Bildarratzek aipatu bezala, lau kanpainari helduko diete, Goierriren eta Tolosaldearen artean promozioa eginez: *Udazkenean*, non gastronomia ardatza izango den. Bigarrena, *Neguan*: saso horretan sagardotegi munduari helduko diote. *Udaberrian* kanpainan, berriz, natura izango da oinarria, eta azkenik, *Udaran*. Azken honetan kulturari, tradizioari eta jaiari lotutako ekitaldiak izango dituzte kontuan. Naturari dagokionez, «Aralar Parke Naturalak lotzengaitu eta Erniokomendilerroak, Leitzarango haranak eta Aizkorri-Aratz Parke Naturalak lotuta ditugu».

«Eskualde bakoitzak dituen produktu turistikoa desberdinak beste eskualdekoarekin osagarriak dira», eta denak batuta, «Euskadiko nortasunaren adierazgarriak eta euskaldunen ibilbidearen isla dira era berean».



Patxi Plazaola, Koro Garmendia, Iñaki Galdos eta Jokin Bildarratz atzo, Larraitzen egindako aurkezpenean. N. URBIZU

Dena dela, Patxi Plazaola Beasaingo alkateak adierazi bezala, «lehen pausoa elkar ezagutzera da, gaur egiten ari garena hain zuzen, eta bigarrena hurbileko turistak erakartzea, beti elkarlanean».

Iñaki Galdosek, Gipuzkoako Foru Aldundiaren inzean hitzarmen honen bat egiten duela adierazi zuen. «Produktu berri bat osatu dute, besteak beste, erakundearen arteko lana bultzatu dutelako».

«Produktu turistikoa berria»

Hitzarmen honetan bi eskualdearen arteko elkarlana hartzen da kontuan. Guztira 46 herri daude «turismoa eta Gipuzkoako bihotza bultzatu eta ezagutzera emango duen produktu berri honetan».

Koro Garmendia Eusko Jaurlaritzako Industria eta Turismo saileko kontseilari ordea «produktu turistikoa berri honengatik» zori handi zuten bultzatzaile eta sustatzaileak eta baita eskerrak eman ere. «Bi eskualdeak baturik berrikuntza gehiago egin daitezke turismoaren alorrean, paisaia, gas-

tronomia eta kultura kontuan izanik». «Era diferente eta berriak erabiliz» jarraitu zuen Garmendiak, «produktu berri merkaturatzea lortu dugu. Pauso kualitatiboa eman da honela». Aldi berean, elkarlanean turismoa bultzatzea «oso inportantea» dela adierazi zuen, «ekonomiaren alor garrantzitsu bat baita».

Gipuzkoan turismoa hiru ataletan banatu zuten: kostaldea, hiriburuak eta azkenik janaria, natura, tradizioa eta jaiak batzen dituen: «Azken hau geure kasua, Euskal Herriaren bihotza». Oraingoa «erronka turismo hau era diferenteez merkaturatzea eta egituratzea da».

«Lan estilo honi jarraituz»

Bildarratzek, bukatzeko, garrantzitsua, «lan estiloa» dela adierazi zuen. «Euskal Herria txikia da eta 46 herrik hartzen dute parte produktu berri honetan. Lan egiteko modu bateratu hau da jarraitu beharreko ildo. Kanpora begira, bateratuta aritzea, hain zuzen».

Hitzarmenaren lana dinamizatzea eta promozioa aziparraratu dituzte. Lana dinamizatu, hala nola, azokak daudenean adibidez, leku bateko zein besteko datak kontuan izanik, antolatzen, begi-

raturuz... Promozioa ere elkarrekin egingo dute: arestian aipatutako lau kanpainak present izango dituzte: *Udazkenean*, *Neguan*, *Udaberrian* eta *Udaran*, hain zuzen ere.

«Batzeko jarrera da: 86.000 biztanle gaude honetan eta ez da turismoa bakarrik lantzeko: industria, gizartea, osasuna... denean gehiago emango da». Bildarratzek,

Azken helburua turisten gau kopurua bai Goierri eta bai Tolosaldean ere areagotzea da

dena dela, «pixkanaka» egituratzen joango den proiektua dela gogoratu zuen, «baina bide honetatik jarraituta».

Azken helburua turisten gau kopurua gure eskualdeetan areagotzea da: bi eskualdeak baturik, «Tolosaldere eta Goierri bideratu nahi ditugu bai Donostiatik, baita Euskadiko beste edozein lekutatik ere. Euskadi mailan erreferente izan nahi dugu».

Bukatzeko, Bildarratzek Tolosaldea Garatzeneko Jose Luis Urdangarin eta Goiturreko Niko Osinalde ere zori handi zuten, «egin dako lanarengatik. Hauen lana ere eskertzekoa da».

Kultur Etxeko ikastaroen eskaintza eta informazioa eskuragarri

Tolosa » Kultur Etxean bertan edota Tolosako Udaleren webgunean ere lor daitezke tailerren xehetasunak.

ERREDAKZIOA

Tolosako Kultur Etxean dagoeneko zein ikastaro eta tailer izango diren jakitea posible da bertara joanda edo www.tolosakoudala.net webgunea bisitatuz. Iazko ikasleek beren etxetan jasoko dute informazioa eta matrikula orria.

Aurten, Internet bidez egin ahal izango dira izen-emateak, honako webgunean: www.tolosakoudala.net. Bertan azaltzen den matrikula orria bete eta ordaintzaren agiriarekin batera ondorengo helbidera bidaliz: kultura@tolosakoudala.net.

Beste era bateko ikastaroak nahi litzuzkeenak Kultur Etxera jo dezake, hurrengo batean ahalik eta eskaintza zabalagoa egiteko. Hauek dira bideak: bertara joanda edo gutuna bidaliz (Kultur Etxea, Trianguloa, 1. posta kodea 20400). Bestela, kultura@tolosakoudala.net era idatziz.

Egitariaurekin argitaratu diren diptikoak herriko bilgune nagusietan eta Kultur Etxean banatuko dituzte ere.

Argazkigintza eta pinturaz

Argazkigintza ikastaroak urtez urte izan duen arrakasta ikusita, lehendik ikastaroetan parte hartu dutenei urtean zehar lanean jarraitzeko aukera eman nahi izan da. Iñigo Royo irakasleak koordinatuta, «hamabosteroko saioak antolatu ditugu Argazkigintza Tailer Iraunkorrean», urria eta ekaina bitartean. «Aukera honen berriz zabalago emango dugu aurrerago».

Tailer hau hasiera mailako beste ikastaro batekin tartekatuko da. Pintura tailerrari dagokionez, iazko leku aldatu ondorioz Kultur Etxeko 2. pisuan izango dira klaseak aurten ere. Argi eta aireztapen baldintza egokiak eskaintzen dituen espazioan kokatuko da.

Antolatzen diren ikastaro batzuetan (pintura, zeramika, egur-taila) matrikula egiteak Kultur Etxeko espazioa tailer gisara erabiltzeko aukera eskaintzen du, hau da; nahiz eta ikastaroak ordutegi zehatzak izan, jendea tailerretara etor daiteke Kultur Etxea irekita dagoen ordutegian.

Ikastaro eta tailer eskaintza

Aurten eskaintzak hauek dira: antzerkia, argazkigintza, argazkigintza tailer iraunkorra, balleta, dantza garaikidea, egurra lantzea, ehoziri lana eta patchworka, marrazketa, eskulanak eta zeramika.

Arte garaikidea

TABAKALERA

Erakusketa Tabakaleran
2008-7-19 / 2008-10-5

De martes a domingo
11:30-14:00 / 17:00-20:30
Sareta doan

Bisita gidatuak
18:00 (euskara)
Asteburuetan
12:00 / 18:00 (euskara)
13:00 / 19:00 (castellano)
11:30 - haurrek (gaztelania)
Taldeak
(also in english and french):
608989298

Tabakalera
Duque de Mendas 52
20012 Donostia-San Sebastián
T: 943-011311

www.tabakalera.eu

Artista:

- Juan Carlos Abam
- Fernando Arias
- Tania Bruguera
- Luis Camilleri
- Yehi Capote
- Jose Damasceno
- Antonio Dias
- Gonzalo Diaz
- Juan Manuel Echavarría
- Regina José Galindo
- Alfredo Jaar
- Julio Le Parc
- Rafael Lozano Hemmer
- Oswaldo Macía
- Cildo Meireles
- Priscilla Monge
- Oscar Muñoz
- Ernesto Neto
- Miguel Ángel Roca
- Chemi Rosado-Seijo
- Lizaso Saavedra
- Valeria Soares
- Javier Tellez
- Toni

www.tabakalera.eu

© DONOSTIA 2016

www.tabakalera.eu



Tolosaldearen eta Goierriren arteko hitzarmena sinatzeko unea. N. U.



Izaskun auzoa. Arratsaldean hasi zen festa giroa Tolosako auzoan. Bertan, haur nahiz helduentzako txokolatea eta bizkotxoak banatu zituzten. Ondoren, buruhandiak aritu ziren maskuriak astintzen haurrei korri eginaraziz. E.EZEIZA



Elduain. Festen hasiera iragartzen zuen suzuria jaurti ondoren, haurrak gaztelu puzgarrietan eta eskulan tailerretan aritu ziren jostatzen. E.EZEIZA



Lizartza. Gaztekoek nahiz helduek hartu zuten parte familiarterko giroan atzo arratsaldean eginiko krosean. Gau aldean, besteak beste, kalejira egin zuten herritarrek, buruhandiek lagundu zieten. L.GARCIA




Zizurkil. Inaxito bere zenbakiekin jolasean ibili zen plazan bildutako haurrekin. Gaztekoek ederki igaro zuten jaietako lehen ekitaldiarekin. L.GARCIA

Asteburuko parrandarako prest



bidali opor hauetako argazkiak!



Sari nagusia

2. saria

3. saria



Beti Alai jateko



Amorotoko Altuena landetxean, bi pertsonentzako bi gauerako egonaldia.

Tolosako **Beti Alai jateko**, bi pertsonentzako bazkari edo afaria.

Ibarrako **Azoka** dendak eskainitako saski berezia.

ARGAZKIAK NORA BIDALI

• **P. elektronikoa:**
tolosaldean@tolosaldeko HITZA.info
• **Postaz:**
Argazki lehiaketa,
Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza,
Araba etorbidea 5 behe, atzea
20400 TOLOSA
Nahi baduzu, argazkiak Tolosako edo Leitzako HITZAren egoitzetara ekarri

Parte hartzaile eta boto emileen artean HITZAko materiala zozketatuko dugu!

HITZA udako argazki lehiaketa

OINARRIAK: www.tolosaldeko HITZA.info webgunean



Pasa den urteko irailan Lizartzako udaletxean hartutako irudia. AIMAZ

Aurrera dirau Otaolaren aurkako mehatxuen aferak

Lizartza » Peio Olano lizartzarrak lau eta sei urte bitarteko espetxe zigorra jaso dezake ustez Regina Otaola mehatxatzeagatik.

ERREDAKZIOA

Madrilgo Auzitegi Nazionalako Fiskaltzak, Javier Zaragoza buru duela, Regina Otaola Lizartzako alkatea mehatxatzeagatik Peio Olanoren kontrako epaiketarekin hasteko eskatu berri du. Fiskaltzak adierazitakoaren arabera, Olanoren aurkako ahozko epaiketaren hasteko unea da, gertatutako ikertuta baitdago jada.

Mehatxuak, ustez, iazko irailaren 7an egin zituen Olanok. Egun horretan Regina Otaola Lizartzako udaletxera joatekoa zen eta hori dela eta herri talde bat *Geurea ikurrina* lemapean elkarretara-

tzea egin eta udaletxe aurrean egon ziren.

Alkateak, bere aldetik, herritar talde bat baimenik gabe elkarretaratu zela eta bere kontrako oihuak egin zituztela esan zuen. Otaolak, besteren artean, «Otaola, hil egingo zara» oihukatu ziotela dio eta ziur dago Peio Olano izan zela hori esan ziona. Ustez berak eman zion izena Ertzaintzari.

Lau eta sei urte artean

Fiskaltzak ez du argitu oraindik zein izango den bere zigor eskaera, baina agertu moduan Udalbatzaren kontrako mehatxu zein beldurraztea lau eta sei urte bitarteko espetxe zigorra izaten du.

Gogoratu behar da kontua iazko irailaren 7tik datorrela. Herriko festetako lehen eguna zen eta Regina Otaola Espainiako bandera jarri zuen udaletxe bakoian. Hau dela eta, herritar talde bat ikurriña-

ren aldeko manifestazioa egin zuten udaletxe parean.

PP alderdiko kideak balkoira ateratzerakoan herritar taldeak oihu desberdinak egin zituen eta behin protesta amaيتuta Ertzaintzak hiru bizilaguni epaitegira joateko zitazioak helarazi zizkien. Tolosako Epaitegiak, hala ere, kasua Auzitegi Nazionalaren eskuan utzi zuen bere ustez terrorismo kasu bat zelako. Azkenean Olanoren kontrako salaketak bakarrik egin zuen aurrera eta lizartzarrak epaitegira joan behar izan zuen azaroa aldean. Fiskaltzak, hala eta gutiz ere, aske utzi zuen inongo kautelazko neuririk hartu gabe.

Regina Otaola buru duen PP alderdiko udal-taldeak 27 bozka jaso zituen azken udal-hauteskundeetan. Legez kanpo utzi zuten EAE izan zen talderik bozkatuena herrian, 186 bozka lortu zituelarik.

Piparraren Lehiaketa Gastronomikoa egingo dute berriz ere

Ibarra » Piparraren IV. Lehiaketa Gastronomikoa egingo dute hilaren 21ean 'Ibarra, azoka, piparra' azokaren barruan.

ERREDAKZIOA

Laugarren aldiz Piparraren IV. Euskal Herriko Lehiaketa Gastronomikoa antolatu du Ibarra Xepa elkarteak hilaren 21erako. Lehiaketa *Ibarra, azoka eta piparra* izenarekin egin ohi den azoka bereziaren barruan egingo dute.

Aurtengo deialdirako Euskal Herriko 250 elkarte egin diete parte hartzeko gonbita, baina «horrek ez du esan nahi hortik kanpo gelditzen diren bere aldetik parte hartu nahi duten gainerako herritarrik», azaldu dute antolatzaileek.

Parte-hartzaileek bi plater pres-

tatu beharko dituzte Ibarrako piparrarekin; piperrada, batetik, eta sei pintxo berdin, bestetik. Plater bakoitzeko irabazleek txapela bana eta 200 euroko saria jasoko dute eta bigarren gelditzen direnak, aldiz, 150 euro irabaziko dituzte. Hirugarrenek 120 euroko saria izango dute.

Plater hauek egin ahal izateko Xepa elkarteak sukaldak, Ibarra-ko piparrak, tipulak eta piper gorri zein berdeak jarriko ditu; ondorioz gainerako osagai guztiak eta sukaldako tresneria norberak eraman beharko du.

Izena emateko epea irekita dago dagoeneko, eta irailaren 16an amaituko da. Izena emateko zein informazioa jaso ahal izateko telefono zenbaki bat (943 67 03 99) eta helbide elektronikoa (*ibarrikult@euskalnet.net*) jarri dituzte antolatzaileek.



Pasa den urteko lehiaketaren irabazleen irudia. HITZA

Laburrak

Munduko Sokatira Txapelketa hasi da Suedian

IBARRA » Lander Otermin ibartarra klubaren arteko Munduko Lur Gainerako Sokatira Txapelketan parte hartzen. Euskal Herriko lau klub joan dira, guztiak gizonen osatutakoak, eta hiru pisutan arituko dira: Goierri A 560 eta 640 kilokoan, Goierri B 640 kilokoan, Gaztedi 560 eta 640 kilokoan eta Getxo 640 eta 680 kilokoan.

Aurrera doa astelehenean erre zen etxearen ikerketa

LIZARTZA » Ertzaintzak azaldukoaren arabera, pasa den astelehen honetan Lizartzan erre zen etxearen inguruko ikerketak aurrera jarraitzen du. Oraindik ez dute inor atxilotu, baina badago, hala ere, kasu honetan inputatuta dagoen pertsona bat. Kasua, beraz, epaitegiaren eskuan dago eta Ertzaintzak kasua aztertzen jarraitzen du.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

hilberriak
urteurrenak
eskertzak



ASIER IMAZ

«Beti ere momentuz, etxeko gazta saltzeko arazorik ez dugu»

LONTXA ZABALETA › Gazta saltzailea

Leitza » Azken hiru gaztak herritar bati saldu eta autora. Lau gazta gehiago hartu eta mahaira galderak pazientziak erantzutera.

ASIER IMAZ

Ostiralero bezala atzo Leitzako plazan merkaturia izan zen. Lore, arropa, barazki eta abarren artean, Gorritz baserrian eginiko artzain gazta saltzen aurkitzen zen Lontxa Zabaleta (Leitza, 1938). Eraso-te auzoko Rezuma baserrian sortua da bera, nahiz eta gaur egun Gorritz baserrian bizi den.

Nola sortu zen ardi gazta egiteko tenorea Gorritz baserrian?

Lehenbizirik ardirik ez genuen baina gero Europara sartu ginenean, esne kupoak eta bestelakoak jarri zituzten. Orduan behiak kendu eta jarri genituen ardiak.

Aldaketa horren ostean, hasieratik hasi al zineten gazta egiten?

Betidanik egin dugu gazta. Aurrena ardi pixka batzuekin hasi ginen eta gazta jendeak eskatu egiten zuten. Kupoak jarri zuen gero, hemen bat edo bestea hartu beharra dago esan genuen. Borda edo pabiloi bat egin genuen eta behiak utzi eta ardiak jarri genuen, eta gazta-ekin segitu genuen.

Eratu etxeko produkzioa da.

Bai. Etxeko esnea da.

Langileak ere etxekoak zarete?

Etxekoak ditugu oraindik; semea aritzen da asko, nik laguntzen diotelarik. Aurten hartu genuen neskatok bat golperik handienerako, laguntzeko.

Idiazabalgo zigilua izateko ardi latxekin lan egin beharra dago.

Baldintza hori behar du nahitaez. Lehengo urtean harrapatu zituzten beste ardien esneekin egindako gaztak eta kanporatu egin zituzten.

Zenbat ardiko artaldea duzue baserrian? Galdetzerik baldin bada-gu.

Gutxi gora behera 300 bat ardi.

Baserritik bizi al zarete erabat, hau da, baserriaz gain kanpoan lanik egiten al duzue?

Eratu baserritik bizi gara aita, semea eta ama. Gero beste bi seme ere baditugu eta horiek obretan aritzen dira.

Etxean produzitzen duzue, baina banaketa nola egiten duzue?

Etxetik saltzen dugu ia dena. Gero ostiralero honera etortzen naiz gazta daukadan bitartean. Gehiena bertan saltzen dugu baina Donostiako supermerkatu batekoak eta hemengo Eroslekoek ere eramanen dute. Azken hauek asko saltzen dute gainera.

Idiazabal bera ez al da banaketaz arduratzen?

Ez bagenuke dena salduko agian lagunduko liguke saltzen baina, momentuz beti ere, arazorik ez dugu, eskatu egiten zaigu.

Ze ezaugarri du zuen baserriko gaztak?

Pikante pixka bat du. Bada jendea hori gustatzen zaiona. Ez da oso fuertea ezta oso suabea ere. Probata jakiten da nolakoa den gazta. **Dastatu eta mihiaren inguruan ez du pikatu behar, mihiaren erdian nabarmendu behar da zaporea.** Hori da.



Bihar iritsiko da udazkena igerilekura

LEITZA » Herriko igerilekuan bihar hartu ahal izanen da azken bainua. Arduradunek igandean itxiko dituzte ateak, hurrengo urteko ekainean berriz ere zabaltzeko asmoz. Hemendik aurrera, udazken goiztiar honi aurre egiteko kiroldegian hainbat ekimen jarriko dituzte

martxan. Piszinako berriekin amaitzeko, igerilekuaren erabiltzaileei, aldageletan utzi dituzten aulki eta hamakak hartu ahal izateko azken eguna biharkoa izanen dutela gogorarazi nahi izan diete igerilekuko arduradunek. ASIER IMAZ

Gaur eta bihar Leitzako IV. Txapelketako finalerdia

Pilota » Gaur 09:30etik aurrera lau partida jokatu dira eta bihar 10:30etik aurrera hiru Amazabal pilotalekuan.

A. IMAZ

Leitzako IV. Pilota Txapelketaren finalerdietako lehen hiru partidak atzo jokatu ziren Amazabal Pilotalekuan. Gaur eta bihar berriz, jokatzeke gelditzen diren zazpi finalerdia jokatu dira. Bost maila ezberdinetako finalak hilaren 21ean jokatu dira.

Gaur alebinak eta infantilak

Amazabal pilotalekuan 10:30etik aurrera txapelketako lau partida jokatu dira gaur.

Alebinetan, Garcarena-Iribarria bikoteak Dario-Sarasa izango dituzte aurrean. Bikote irabazleak finala ondoren jokatu den partidako garaileen aurka jokatu dute. Bigarren partidako protagonistak Espinal-Goñi eta Sagastibeltza-Bakaikoa izango dira.

Alebinen finalerdien ostean, infantilen txanda iritsiko da. Olanortola eta Jaunarena-Tolosak jokatu dute lehen finalerdia. Ondoren, finalerako bigarren txartelaren bila, Arozena-Apeztegia eta Elezkano-Hernandorena irtegaro dira kantxara. Txapelketaren barruan gaur jokatu den azken partida izango da hau.

Gaur jokatu diren partiden ostean, alebinetan eta infantiletan finala hilaren 21ean noren artean jokatu den jakinen da.

Bihar 09:30etik aurrera

Goiz hasiko dira bihar Leitzako IV. Txapelketako azken finalerdia. Hirurutan lehena 09:30ean jokatu da Amazabal pilotalekuan; Loidi- Arratibel bikoteak Lopez-Zinkunegi izango dituzte aurrean. Kadete mailako partida izango da lehen hau norgehiagoka hau.

Ondoren jubenilen finalerdia jokatu da Ansotegi-Albisu eta Sagastibeltza-Arzelusen artean.

Finalerdietako azken partida nagusien mailakoa izango da: Renobales-Madariaga bikoteak Arraztoa-Bengoetxea izango dituzte arerio finalerako azken txartelaren lehian.

Irabazte iritetzen diren hiru bikoteen aurkariak, atzo 19:00etatik aurrera jokatu ziren partiden irabazleak izango dira.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Irakaslea.** Lazkaoko Ingelesko Akademiarako irakaslea behar da. Bidali Curriculum Vitae helbide honetara: hizkuntzaeskola@gmail.com.

■ **Zaintzailea.** Tolosan arratsaldean bi ume zaintzeko pertsona bat behar da. Interesatuak deizetela telefono zenbaki honetara: 630 98 43 00.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta Leizalzeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

■ **Irura.** Ikastola berriaren inaugurazioa 12:00etan: dantzarien agurra, bideoa, hitzaldiak....
■ **Tolosa.** Hilaren 13 eta 14rako, Belagoara mendi irteera antolatatu du Alpino Uzturre elkarteak, Otso-gorrigaina (1.922m), Kartxela

(1.982 m) eta Anie (2.507 m) mendiak igoz.
■ **Zizurkil.** AHTren aurkako Gazte Eguna: 14:00etan bazkaria, segidan sorpresa, 17:30ean jokuak, 19:30ean eskualdeko manifa, 23:00etan kontzertuak. Tartean ekitaldia.

■ **Villabona.** Joxean Larrañaga parrokoa agurtuko dute hilaren 21ean; 12:30ean meza izango da Bihotz Sakratuaren parrokian eta 14:15ean bazkaria Olentzo jatetxe-engan. Izen-ernatea, parokiako bulegoetan bertan egin ahalak da.

Zinema

■ **Tolosa.** *Wall-E Batallon de limpieza* gaztetxoei zuzenduriko filma 17:00etan, *Sexo en Nueva York* 19:30ean eta *El caballero os-curo* 22:30ean izango dira gaur Leidor aretoan emango dituztenak.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Azpiroz, L. Amaratz auzoa, 9. 943 67 5118.
■ **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanena eta iritzien erantzunik.

A Agurrak



Zorionak!

Eta ondo pasa zuen ezkontza egunean. Julen eta Maddi, Nagore eta Maider eta bereziki Nerea. Aupa Urki!



Zorionak!

Ondo pasa zuen ezkontza egunean. (Mutxurdiñak)



Zorionak!

Jexux (Urki) eta Belen. Ondo pasa zuen ezkontza egunean. Zuen bion lagunen partetik.



Zorionak!

Aitaxo eta amatxo. Zuen alaba Nerearen partetik.

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...


agurrak

Mesedez,
ekarri
argazkia
bi egun
lehenago.



Zorionak!

Ana. Ea uztaileko alardea errepikatzen dugun gaurkoan ere! (Mutxurdiñak).



Urte askoan!

Dolores Artola Istilleta (Lizartza). Gaur 82 urte. Ama eta amona paregabea. Zorionak eta urte askoz bihotz-bihotzez. Seme-alaba, sui-errain eta biloben partetik.

943 671 427

Agurrak hasi du bere jardueraren 10. urtearen ospakizuna. 10 urteko ospakizuna. Agurrak hasi du bere jardueraren 10. urtearen ospakizuna. 10 urteko ospakizuna.